



## Astelehenean atxilotutakoek torturatu egin dituztela salatu dute

Jose Camacho hernaniarra torturen eraginez dagoela ospitalean azaldu zuen atzo AAMK. Eta jakinarazi zuen, gainerako atxilotuak ere, bi hernaniarrak eta segurarra, Guardia Zibilaren esku egon diren inkomunikazioaldian, torturatu egin dituztela.

ASTELEHENEAN Guardia Zibilak atxilotutako Jose Camacho, Josune Balda eta Juan Mari Mariezkurrena hernaniarrak eta Euri Albizu segurarra, inkomunikazioaldian, torturatuak izan direla jakinarazi zuen atzo Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. Horrez gain, azaldu zuen, Camacho gogor torturatu dela eta horregatik dagoela ospitalean. Asteazkenetik bertan izan dela adierazi zuen AAMK. Lau atxilotuek *poltsa*, ariketa fisikoak eginaraztea, irainak eta mehatxuak salatu dituzte, besteak beste. ||



### Egunkaria libre! oihukatu zuten atzo zazpigarren urtez

ATZO bete ziren zazpi urte Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuela. Hamar lagun atxilotu zituzten, eta horietako bost auzipetuta daude; momentu honetan epaiaren zain. Hori horrela, Egunkariaren aldeko Eguna izan zen atzo Euskal Herriko hainbat herritan; Hernanin ere bai. Dultzainero eta Kalez Kale Kantarikoekin hasi zen giroa berotzen goizetik, eta ondoren, sagardoa eta mokadu goxoak probatzeko aukera izan zen Plaza Berrin. Trikitixa, dantza eta bertsoak ere ez ziren falta izan. Martxelo Otamendi, auzipetuetako bat, bertan izan zen eta epaiketari buruz esan zuen hainbeste urte eta gero, ez dutela ezer frogatu, ez dagoelako ezer frogatzeko. «Hori bazekiten aurretik, baina Euskal Herrirako abisua eman nahi zuten». Horrez gain, eskerrak eman zizkien denei sorreratik emandako laguntzagatik. Eta bitartean, ekitaldiari kolorea eman zieten umeek beren marrazkiekin. ||

### ◆ ERRUGBIA

**Irabazi beharreko partidua jokatuko du gaur Hernanik Oviedoren aurka, Landaren**

Hernani lider dijona Ohorezko B mailan, eta postu horri eutsi eta iguera fasean sartzeko, behar beharrezkoa du gertzen diren lau partidua irabaztea; hurrengo sailkatuak gertu baitaude. Oviedo taldearen aurka jokatuko du gaur eta ahal dutena eta gehiago ematera aterako dira Landarera. 12:00etan hasiko da. ||

### ❖ PRENTSA DHARRAK

**Alkateak parkin berria du hizketagai eta Hamaikabatek Mugikortasun Plana**

Marian Beitialarrangoitia alkateak eta Iñaki Arratibel Hamaikabateko zinegotziak prentsa ohar bana bidali dute. Alkateak Karabelen martxan den aparkalekuari buruz hitz egin du eta Arratibelek Mugikortasun Planaren aurka alegazioak aurkeztu dituela azaldu du. /2

### GAUR KRONIKAN

**Langile Ikastola:**  
manifestazioa gaur /2

**KIROLAK:** pelota, bixirindularitza, waterpolo, futbola... /3

**Emakumeentzako** Jabetze eskolak: Iratxe Retolaza /6

**Gazte Asanblada:**  
Herri Olinpiadak /7

**Eskelak** /7

**Argazki erakusketa:**  
Marie Claire Aduriz /8

## ALTZUETA

SAGARDOTEGIA

Asteartetik larunbatera gauzez irekita  
larunbatetan eguerdian irekita

www.altzuetasagardotegia.com - tel. 943 55 15 02 - Osinaga Auzoa, 7 - Hernani

## ARRALAR

TABERNA

GIRO EDERRA ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8  
943 33 15 06

## Vanessa eta Miguelo

Harategia eta aurrez egindako janaria

Larunbata eta igandea goizez irekita  
Egin zure enkargua !!  
Aukera zabala

ASTEBURU HONETAN :		
OILASKOA patatak sagardo bot.	BASURDEA saltsan 8,50€	SAIHESKIA patatak sagardo bot. 8,95€

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

❖ LANGILE IKASTOLA

## Manifestazioa gaur, «Hezkuntza sailak inposatu nahi duen fusioa salatzen»

Plaza Berritik abiatuko da 13:00etan, atzotik egiten ari diren itxialdia bukatzean. Dei egin diote Langileko komunitate osoari parte hartzeko.

LANGILE Ikastolako Organo Gorenak deituta, manifestazioa egingo dute gaur herrian zehar, «Hezkuntza sailak inposatu nahi duen fusioa salatzen». Eguerdiko 13:00etan abiatuko da Plaza Berritik, atzotik egiten ari diren itxialdia bukatzean. Manifestazioan parte hartzeko dei egin diote Langile Ikastolako komunitate osoari: lehengoei eta oraingoei.

### Itxialdi jendetsua

Langileko irakasle eta gurasoak itxialdia ari dira egiten atzotik Laubidietan. 40-45 bildu dira 24 ordutarako eta horrez gain, ordu batzutarako beste hamarnaka ere gerturatzen dira. Pozik azal-



Jende askok hartu du parte itxialdian eta gaurko manifestazioa ere jendetsua izatea espero dute.

du dira itxialdiarekin, baina manifestazioan nahi dute. tazio koloretsua izango da, babesa, batez ere, gaurko Beraien esanetan, «manifestazio koloretsua izango da, Ikastola bera bezala». ❖

❖ KONTZERTUA

### Akordeoi zikloa gaur

Akordeoi kontzertua izango da gaur Milagrosan Hauspoz Euskal Herriko akordeoi elkarteak antolatuta. Kontzertua emango dutenak honakoak izango dira: Juan Matias, Roser Gabriel eta Ander Telleria. Eguerdiko 12:30etan hasiko da emanaldia. ❖

❖ ATEZ ATEKOA

### Jarraipen batzordea asteartean

Atez Ateko Jarraipen Batzordea izango da datorren asteartean, Udaletxeko Areto nagusian, 19:00etatik 21:00tara. Azaltzeko gonbitea luzatu dute. ❖

❖ IPUIN ORDUA

### Asteartean izango da

Maite Frankoren eskutik ipuin ordua izango da asteartean Liburutegian. 17:30etan (3-4 urte) eta 18:00etan (5-7 urte). ❖

❖ HAMAİKABAT - PRENTSA DHARRA

## «Hernani ekialdeko sarrera nagusia Karabeleko auzoa izatearen aurka gaude»

«Orbegozo zubia itxi eta herrirako sarrera Karabeleko zubira desbideratzeak, gehiegizko trafikoa eragingo du Karabelen ez ezik, Portun eta Leokako igieran».

IÑAKI Arratibel Hamaikabat alderdiko zinegotziak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, alegazioak aurkeztu ditu Gobernu Taldearen Mugikortasun Planaren aurka. Bertan azaltzen du aurka dagoela Karabeleko zubia izatea Hernani ekialdetik datozen ibilgailuen sarrera nagusia. Hala azaldu du: «Orbegozoko zubia itxi eta herrirako sarrera Karabeleko zubira desbideratzeak, Karabel auzoan ibilgailu gehiegi pasatzea eragingo du. Desbideraketa honek gainera, trafikoa dexente igotzea ere eragingo du Portu auzoan eta Leokako igieran».

### «Egokiena: sarrera eta irteerak dibertsifikatzea»

Arratibelek bere ustez egokiena litzatekeena ere azaldu du: «egokiena herrirako sarrera eta irteerak dibertsifikatzea litzateke, eta Mugikortasun Plana alderantzizko bidean doa. Orbegozo zubiko sarrera kentzea proposatzen da, baina baita ere Lizeaga kaleko irteera kentzea. Lizeagatik Zirkuituko karreterarako irteera ixteak eta Orbegozo zubiko

sarrera kentzeak, bakarrik eragingo du ibilgailu gehiago ibiltzea herriguneetan».

### «Zentzugabekeria»

Arratibelek honakoa gaineratu du: «dirudienez, Mugikortasun Planak ez ditu mugikortasun jasangarriaren gomendioak kontuan hartzen. Latsunbeko bidea bi norabidetan irekitzeko asmoa dago, eta azterketak berak azaltzen du periferia 10 minutu eskasera dagoela zentrutik oinez. Zentzugabekeria da ibilgailuen erabilera bultzatzea, ibilgailuei oztopoak jarri nahi zaizkienean herri barruko ibilbideetan». «Beldur gara ez ote dion proposamen honek hirigintza sailari obeditzen mugikortasunaren azterketari beharrezko, aipatu du.

Herri-guneari dagokionean, zailak azaldu ditu Izpizua eta Nafar kalea oinezkoentzako jartzeari buruz. Bere ustetan, egokiagoa da eztabaidarako oinarri bezala hartzea, LEBERek 2004an mugikortasunari buruz egindako azterketa. ❖

❖ MARIAN BEITIALARRANGOITIA - PRENTSA DHARRA

## Aparkaleku berria martxan da Karabelen, Txantxillakoa ordezkatzuz

«Pentsatzen dugu igogailuak gauzak asko errazten dituela eta ez dagoela erdigunea Txantxillatik baino urrutiago honi esker; hortaz, toki egokia jo dugu».

TXANTXILLAKO lanak direla eta, Txantxillako aparkaleku guztiz desgertzeaz da eta itxi aurretik, ordezkatzeko duen aparkaleku eginarazi du Udalak Karabelen. Erabiltzeko moduan da atzotik. Honen guztiaren berri eman du Marian Beitalarrangoitia alkateak prentsa ohar bidez. Azaldu du: «gauza jakina da Txantxillako aparkaleku jende askok erabiltzen duela eta erabiltzaile horiek asko nabaritu dituztela murrizketak bertan egin behar diren etxeen eraikuntza lanen eraginez. Lan horiek beste pauso bat emango dute aurki, eta sarbide berria izango diren errotonda eta errepidea egiteko beharrezkoa da aparkaleku guztiz kentzea».

### Sandiusterrikoa egin bitartean

Beitalarrangoitiak azaldutakoaren arabera, Txantxillako lanek aurreikusitako dute, behin lanak amaituta, Sandiusterriko kalea, gaur egungo Axalako sarrera, itxi egingo dela eta bertan aparkalekuak jarriko direla, irteerarik izango ez duen kale itxi bat egingo. «Hori ezin da egin aurrez erre-

pide eta sarbide berria antolatu gabe, hortaz, hilabetetan inguruko aparkaleku guztien faltan izango ginateke».

Eta hori horrela, honakoa proposatu dute: «Txantxillako lanak egiten ari direnei ordezkoko aparkaleku eginarazi diegu Karabelen, Txantxillakoa itxi aurretik. Pentsatzen dugu igogailuak bertan kotxea utziko dutenei gauzak asko erraztuko dizkiela eta honi esker, ez dagoela erdigunea Txantxillatik baino urrutiago; hortaz, ordezkoko toki egokia jo dugu». Txantxillan zeuden 131 aparkalekuak orain Karabelen izango dira probisionalki, eta horietatik 3, elbarrizentzat. Sarbidea zubi ingurutik du eta ateratzeko toki trenbide aldetik.

### «Zubipe parean bada beste bat»

Alkateak gogorarazi die aparkaleku beharrezko direnei, Zubipe parean, Gureola inguruan, badela beste aparkaleku bat. «44 kotxerentzako lekua dago eta ondoan, beste 37rentzat toki dago. 81 aparkaleku daude zonalde berean, oso gutxi erabiltzen direnak, nahiz eta igogailutik 3 minutura egon». ❖

## ◆ PELOTA - BINAKAKO TXAPELKETA

# Olaizola II eta Medinzabal IIak gaur, garaipena ezinbestekoa dute aurrera egiteko

Martinez de Irujo eta Beroiz izango dituzte aurrez aurre; txapelketan oraingoz partidu bakarra galdu duen bikotea.

Jokatu dituzten sei partiduetatik hiru irabazi dituzte Olaizola II-Mendizabal IIak eta lau bikote dituzte aurretik.

BINAKAKO pelota txapelketa aurrera doa eta bi jardunaldi geratzen dira finalerdietarako txartela lortu dutenen izenak ezagutzeko. Aimar Olaizolak eta Oier Mendizabalek aurrera egiteko, ia-ia beharrezkoa dute

gaurko partidua irabaztea. Martinez de Irujo eta Beroiz izango dituzte aurrez aurre, Eibarreko Astelena pelotalekuan. 17:00etatik aurrera.

Martinez de Irujo eta Beroiz txukun dabilta txapelketan eta

oraingoz jokatutako sei partiduetatik bakarra galdu dute. Olaizola IIak eta Mendizabal IIak hiru.

**Lau bikote aurretik**  
Finalerdietara lehenengo lau

bikoteak pasako dira eta horietatik bakarra galdu dute. Olaizola IIak eta Mendizabal IIak oraingoz aurretik dituzten bikoteak: Irujo-Beroiz eta Titin III-Pascual bosna partidu irabazita; eta Xala-Zubieta eta

Gonzalez-Laskurain launa partidu irabazita. Gauzak horrela, gaur irabazteak ez liekete finalerdietarako txartela ziurtatuko, horretarako geratzen zaizkien bi partiduak irabazi behar baitituzte. ||

## ◆ PISTAKO TXIRRINDULARITZA - GIPUZKOAKO TXAPELKETA

## Iñaki Lekuona puntuazio eta Madison modalitateko txapeldun

Bruesa taldeko Iñaki Lekuona hernaniarrak eta Txomin Juaristi lasartearrak irabazi dute txapelketako 3garren jardunaldia.

PISTAKO txirrindularitzako Gipuzkoako Txapelketa urtarileko azken asteburuan hasi zen eta herenegun, hirugarren jardunaldia jokatu zen: Madison modalitatea edo Amerikarra. Bertan, Iñaki Lekuona hernaniarra izan zen txapelduna Txomin Juaristi lasartearrekin (Bruesako taldekideak). 19 puntu lortu zituzten. 14 txirrindularik hartu zuten parte 100 itzuliko lasterketa horretan. Asier Larrañaga hernaniarra ere bertan izan zen eta lan ona egin zuen.

**Txukun dabil Lekuona**  
Aurreko jardunaldietan ere txukun ibili da Lekuona.



Iñaki Lekuona eta Txomin Juaristi.

Lehenengo jardunaldian, Persekuzioan, 10garren postua lortu zuen. Bigarren, Keirin edo abiadura frogan, eta puntuazio proba izan

ziren. Keirin frogan finalean sartu eta 5garren egin zuen. Puntuazioan, berriz, podiuma igo zen hirugarren postua eginda. ||

## ◆ PELOTA - VII BERRIA TXAPELKETA

## Hernani txapelketatik kanpo, ahal zuena emanda

Leitzarrak 2-1 nagusitu ziren herenegun jokatutako kanporaketan. Hernaniarrek maila polita erakutsi zuten txapelketako faboritoen aurka.

HERNANIK herenegun jokatu zituen Berria Txapelketako lehenengo partiduak. Leitzako Aurrera taldearen aurka lehiaztea tokatu zitzaion eta aurkari zaila izanda, ez du txapelketan aurrera egitea lortu. 2-1 galdu zuten hernaniarrek, baina ahal zuten onena emanda, 4 orduz jokoan aritu eta gero.

Kadeteetan, Iñigo Urkizuk eta Aritz Murgiondok 12-22 galdu zuten Olano eta Hernandorenaren aurka. Jubeniletan irabazi egin zuten Xabi Santxok eta Markel Lizeagak Jaunarena anaien aurka: 22-19. Eta seniorretan, Iñaki Esnal eta Aitor Gorrotxategik 13-22 galdu zuten Esain eta Iriarteren aurka.

**Gustora emaitzarekin**  
Txapelketatik kanpo geratu arren, hernaniarrek gustora daude lortutako emaitzarekin; izan ere, leitzarrak txapelketako faborito dira eta irabaztea zaila ikusten zen. Eta aurreikuspenak beteta, finalera iristeko aukerak badituztela erakutsi zuten nafarrek. ||

## ◆ FUTBOLA



### Hernanik 3-2 irabazi zuen atzo; Real Unione 9 jokalarirekin bukatu zuen

Arbitroaren papera eta bigarren zatiko giro beroa izan ziren nagusi atzoko partiduan. Lehenengo zatian ez zen golik izan eta atsedenaldira 0-0 iritsi ziren Hernani eta Real Union. Bigarren zatian, berriz, iruindarrak aurretik jarri ziren 0-1. Minutu batzutura, ordea, Real Unioneke atezainak egindako penalti argi baten ondorioz, zalaparta sortu eta arbitroak bi txartel gorri atera zituen Real Unionekoak 9 jokalarirekin utziaz. Tartean, entrenatzailea ere kaleratu zuen. Hernanik aukera aprobetxatzen jakin zuen eta aspaldian esperotako garaipena lortu zuen atzokoan: 3-2 irabazita. ||

## ◆ WATERPOLOA

### Etxean jokatuko dute bai mutilek eta bai neskek gaur

Senior mutilek Tximistarri Donostiako taldea izango dute aurrez aurre kiroldegian, 12:30etan hasita. Neskek, berriz, Sestaoko Maristas taldearen aurka jokatuko dute. Mutilen partiduaren ondoren izango da, 13:30etan. ||

## ◆ TXANTXANGORRI ELKARTEA

### Binakako eta banakako mus txapelketetako final zortzirenak, datorren astean

Txantxangorri elkartean binakako eta banakako mus txapelketak ari dira jokatzen eta final zortzirenetako partiduak jokatuko dituzte bihartik hasita. Bihar: Pablo-Niko/Otaegi-Galan; Txitxo-Aritz/Larrañaga-Goikoetxea; Monroy II-Txato/Mikel-Joxe; eta Jose Leon-Patxi/Pineda-Luis. Etzi: Javier Oskoz/Pablo Ruiz; Monroy II/Juan Otaegi; Bixente Goikoetxea/Emilio Crespo; eta Vicente Goñi/Jose Leon. Ostegunetan: Jonkar-Joseba/Pepe-Jose Martin; Goñi-Bilbao/Bixente-Julio; Jose Luis-Antxon/Pablo-Felix; eta Emilio-Ibon/Mauri-Txanpi. ||

**Hilabete pasa da** txotx irekiera ekitaldia izan zenetik, Aizpea Goenagak lehen sagardo tragoa edan zuenetik. Geroztik, jendea ibili da herrian, denboraldi hasera beti lasaiagoa izaten bada ere.

Inauteriak igaro ondorenean jende mugimendu handia espero da hala ere, sagardotegietan. Gu Jabier Ansorena Rufinoko sagardogilearekin bildu gara, horretaz, baina batez ere, sagardoaz hitz egiteko.

## Javier Ansorena - Rufino sagardotegia

# «Hainbat baldintza kontrolatu daitezke, baina sagarra ez; eta eskerrak, hor baitago sagardoaren grazia»

### Arnaitz Lasarte

JABIER Ansorena gustora dago bere etxeko sagardoarekin. Aurten sagardo egiteko erabili duen ia sagar dena kanpokoa izan omen da, hemen ez zelako. Batzuk oraindik errezeloz begiratzen badiote ere kanpotik datorren sagarrari, bere ustez Galizia eta Frantziatik ekarritako sagarrak kalitate ona du, hemengoak bezalaxe. Bertako zein kanpoko sagastiei akats bat somatzen die ordea Ansorenak. «Sagar gazia falta da, eta nire arabera, sagardo ona izateko lehengai garrantzitsuena hori da».

Sagar gaziaren kopuruak asko baldintzatzen omen du gero lortzen den sagardoaren emaitza. Koloreari dagokionez adibidez, «aurten sagardoaren kolorea kargatua edo ilun samarra atera da, eta hori Frantziatik sagar gozo eta motel dezente eta gazi gutxi etorri delako gertatu da, besteak beste».

### «Urtero antzeko sagardo egitea ez da erraza»

Lehen, eguraldiak zerikusi handia zuen sagardoak tola-retik botilara egiten duen ibilbidean. Tenperatura aldaketek zaildu egiten zuten sagardo kontrolatzea eta nahi bezalako zukua ateratzea. Orain ez du hainbesteko eraginik ordea tenperaturak; ez udazken epelak, ez azken asteetako hotzak. Hala azaldu du Ansorenak: «gaur egun prestatuta gaude ia denak hotzaren makinekin, tenperatura aldaketek eraginik ez izateko sagardoan. Garrantzitsua irakin garaian, urria inguruan, justu beroa egiten duenean, makinak martxan edukitzea da».

Beraz, urtero antzeko sagardo egitea errazagoa



Jabier Ansorena Rufino sagardotegian, jendea txotxean ari dela.

«Aurten hemen ez da sagarrak izan eta sagardo egiteko erabili dudan sagar ia dena kanpokoa izan da. Batzuk oraindik errezeloz begiratzen badiote ere kanpotik datorren sagarrari, Galizia eta Frantziatik ekarritako sagarrak kalitate ona du, hemengoak bezalaxe».

«Sagardotegira etortzen den jendeak eskatzen du sagardo xuabeagoa, horretara ohitu da jendea eta garai bateko sagardo gogorak ez ditu ia inork nahi. Hala ere, sagardoak garrantzitasun puntu bat izatea ezinbestekoa da eta hala izan dezan saiatzen naiz ekoizterakoan».

dela pentsa daiteke. Baina Rufinoko Ansorenak esan digunez, oso zaila da urtea joan eta urtea etorri sagardo berdina egitea; eta eskerrak gainera, sagardoaren grazia hor baitago. «Beste hainbat baldintza kontrolatu daitezke, baina sagarra ez da inoiz guztiz berdina izaten, eta hori da, azken finean, faktorerik erabakigarriena» adierazi digu Ansorenak.

### Sagardo asko aldatu da azken urteetan.

Orain egiten den sagardo garai batekoa baino edanerrazagoa da, azidotetasun gutxiago duena. «Sagardotegira etortzen den jendeak eskatzen du sagardo xuabeagoa, horretara ohitu da jendea eta garai bateko sagardo gogorak ez ditu ia inork nahi» azaldu digu Ansorenak. Gainera, kontuan hartu behar da garrantzitasunak muga batzuk dituela legez. Hala ere, bere ustez sagardoak garrantzitasun puntu bat izatea ezinbestekoa da eta hala izan dezan saiatzen da ekoizterakoan.

### Txotx denboraldiko beheraldia

Hiru aste dira Rufinoko atea ireki zituztela eta Ansorenak onartu digu, joaten den jende kopurua jaitsi dela. Baina ez omen da azken bi urteetako kontua hori, «txiriko beheraldia azkeneko 8-9 urtetan nabaritu dugu. Urtetik urtera pixkanaka behera etorri da, aste egunetan batez ere». Nabarmendu digu, horren arrazoi bakarra ez dela krisia: «Ohitura aldaketak, alkoholemia kontrolak gehitzeak... arrazoi asko daude krisiaz aparte, guri mesederik egin ez digutenak». Hala ere, hurrengo hilabeteetan lan egiteko itxaropentsu utzi dugu Rufinoko sagardogilea. ■

## Txotx gida 2010

Ez dakizu zein sagardotegira joan?  
begiratu zeure mobilean

Gipuzkoako Sagardogile Elkarteak 2009an atera zuen eskuko telefonoetarako sagardotegi gida eguneratu du, Txotx gida 2010. Gida honek, Gipuzkoako Sagardogile Elkarteko sagardotegien datuak, dekalogoak, sagardoarekin egiteko errezeptak eta beste hainbeste datu biltzen ditu. Lau hizkuntzatan dago: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, erabiltzaile bakoitzak nahi duen hizkuntza aukeratzeko.



Modu erraz eta erosoan sagardotegiei buruzko informazio guztia lortu daiteke mobilaren bidez.

SAGARDOTEGIEN inguruan behar den informazio ia guztia aurki daiteke Gipuzkoako Sagardogile Elkarteak egokitu duen Txotx gida berrian: noiz ireki eta ixten dituzten ateak sagardotegi desberdinek, zein egunetan egiten duten lan eta jai, ematen dituzten zerbitzuak eta dauzkaten berezitasun eta salmenta moduak zein diren. Galduta ibil daitezkeen sagardozaleentzat mapa interaktibo bat ere badu gainera gida berri honek, sagardotegi bakoitza non kokatzen den garbi erakusten duena.

Elkartearen inguruko kontuez gain sagardoaren deskribapen motz bat ere topa daiteke telefono mugikorerrako gida berrian. Baita merkaturatzeko moduen informazioa eta kontserbaziorako eta garraiorako gomendio baliagarri batzuk ere.

Sagardoak dituen ezaugarri fisiko-kimiko eta mikrobiologikoen azalpen bat ere badago.

**Sagardoaren dekalogoak**

Sagardoaren dekalogo bat ere eskeintzen du gidak hamar arauetan. Arau hauek dira batzuk:

1. Sagardoa 10-13° C gradu artean kontsumitzea gomendatzen da, freskoa.
2. Sagardoa filtratu gabeko edaria denez, sedimentuak hondoratzen joango dira denborarekin. Ireki aurretik botila buruz behera jarri eta astindu egingo dugu, sagardoa homogeneizatzeko.
3. Edalontzitik 20-30 zentimetrora zerbitzatu, sagardoa hautsi eta txinparta ateratzeko.
4. Trago batean edango den sagardo

kopurua zerbitzatu aldiro.

5. Behin botila irekita denbora tarte laburrean kontsumitzea komeni da, irekita gordez gero, propietateak galduko baititu.

6. Sagardo bakoitzak dituen ezaugarrien arabera, kontsumitzeko garai egokiago bat du, normalean botilaratu eta urtebeteko epean.

7. Sagardoa edateko edalontzia zabala eta kristal finekoa izatea gomendatzen da.

**Sagardoa osagai duten plateren errezetak**

Berritasunen artean, gidan aurkeztu dituzten errezetak daude. Guztiek berezitasun bera dute, sagardoa dutela osagaietako bat. Adibidez, txerri-xolomoa sagardo saltsarekin nola prestatu erakusten dute:

Osagaiak: 8-12 txerri xolomo xerra, 1-2 tipula, baratzuria, ogi birrindua eta irina. Prestaketa: Frijitu zartagin batean bi baratzuri ale osorik, eta bertatik kendu gabe xolomoa frijitu ogi birrindutan pasata. Behin frijituta *fuelle* luze batean jarri xolomoa. Olio berean tipula egin eta koilarakada bat irin bota. Pixkanaka sagardoa botatzen joan eta gatza bota. Saltsa egin dagoenean xolomoari gainetik bota eta zerbitzatu.

**Nola lortu aplikazioa**

Aplikazio hau deskargatzeko, mugikorretik "TXOTX" hitza 5195 zenbakira bidali behar da. "Txotx gida 2010" jaisteko beste aukera, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartean bertan, bluetooth bidez jaistea da, hau dohainik egin daiteke gainera. ||

**MARTXOA**

HOTELA + HEGALDIA

<b>LANZAROTE</b>	<b>391'00€</b>
Bilbotik, 7 gau, hotel 3*** MP	
<b>GRAN CANARIA</b>	<b>452'00€</b>
Bilbotik, 7 gau hotel 3*** MP	
<b>TENERIFE</b>	<b>517'00€</b>
Bilbotik, 7 gau, hotel 4**** MP	
<b>LA HABANA</b>	<b>480'00€</b>
Madriletik 7 gau hotel 3*** AD	

**ASTE SANTUA : ZIRKUITOAK**MARTXOAREN 31 tik APIRILAREN 5 era  
Irteerak Donostiatik.

<b>APIRILA</b>	
<b>BUENOS AIRES</b>	<b>678'00€</b>
Madriletik 7 gau hotel 3*** AD	
<b>SALVADOR DE BAHIA</b>	<b>722'00€</b>
Madriletik 7 gau hotel 4**** AD	

<b>RHIN</b>	<b>435'00€</b>
Hotel 3*** AD	
<b>VENECIA eta FLORENCIA</b>	<b>450'00€</b>
Hotel 3*** AD	
<b>AMSTERDAM</b>	<b>455'00€</b>
Hotel 3*** AD	

**HERNANI**  
**BIDAIK**  
Urbieta, 6  
943 33 00 49  
hernanib@teletel.es  
www.hernanibidaiaik.com

# BERDINTASUN SAILA - Emakumeentzako Jabetze Eskolak

Iratxe Retolaza - Irakurbide Feministak (lehenengo ikastaroa):

## «Emakume irakurle bezala, ea ohartzen garen, oharkabean mezu matxista asko jaso ditugula»

Jabetze Eskolen barruan, lehendabiziko ikastaroa ostegunean hasiko da: Irakurbide Feministak. Ikastaroa Iratxe Retolazak emango du, eta bihar da azken eguna apuntatzeko.

EMAKUMEENTZAKO Jabetze Eskolak esaten dugunean zer esaten ari gara? Zer da emakumea jabetzea? Jabetzea da, ohartzea, norberak eskubideak dituela, gaitasuna daukala, eta aukera edo ahalmena daukala, gauza ezberdinetarako, besteek bezala. Eta horiek eskatzea, aldarrikatzea eta eguneroko bizitzara eramatea. Hori lantzeko, Hernaniko Berdintasun sailak antolatuta, lau ikastaro edo tailer emango dira, otsailean hasi eta ekainera bitartean. Hernaniko Udalak, Gipuzkoako beste hiru herriekin batean Jabetze Eskolak eskaintzen ditu.

Ikastaroak, esan bezala, aste honetan hasiko dira, ostegunean. Aste honetan hasiko den ikastaroa Iratxe Retolazak donostiarrak emango du, eta Hernaniko Kronikak bereganajo du, labur-labur, ikastaroaren nondik norakoak jakiteko.

**Irakurbide Feministak ikastaroa emango duzu zuk. Zertaz ari gara, irakurbide feministak esaten dugunean?** Ikastaro honetan asmoa da ikustea, ea literaturak zertarako balio duen feministontzat; edo bestela esanda, literaturak zertan lagun dezakeen feminismoan urratsak egiteko.

Ikastaro honetan, asmoa da, gogoeta egitea, heziketa literario bat jaso dugula guztiok, eta heziketa horretan, oharkabean, balore batzuk jaso ditugula denok. Nahi ala ez, eredu batzuk, kanon asko, ikuspegi matxista batetik ezarriak dira. Eta gu, emakume irakurle bezala, ea ohartzen garen, oharkabean jaso ditugun eredu asko, ez direla, genero ikuspegitik, guk ditugun

ideia batzuei lotuak.

Hiru urratsetan landuko dugu gaia.

1.Urratsa - Gogoeta egitea: Emakume irakurleak gara. Horrek eraginik ba al du gure irakurketa ohituretan?

2.Urratsa - Ea testuetako eredu matxistak eta feministak identifikatzeko gai garen. Feminista garen asko eta askok, gizarteko beste alor batzuetan berehala identifikatzen ditugu gauza matxistak. Baina literaturan, heziketa literarioak bultzatuta, ez ditugu identifikatzen.

3. Urratsa - Instituzioek heziketa horretan irakurtzeko proposatzen dituzten kontzeptu batzuk, nola diren nahiko matxistak. Eta instituzioak diodanean, da, bai unibertsitatea, bai eskolak, bai hedabideak... Eramango ditut hedabideetako testu batzuk, unibertsitateko kritikak...

**Eredu horien adibiderik eman dezakezu?**

Adibide bat emango dizut. Edozein garaitan irakurri dezakegun esaldi bat: zer dago misterioitsuagoa emakume baten mundua baino? Esaldi horrek atzean, gauza asko ezkututzen ditu. Horrelako gauzak, literaturan asko eta asko egin dira. Hori egin duenak ez du espero komentarioen hartzailera emakumea izan daitekeen ere. Edo intimismoari buruz hitz egiten denean, eredu batzuk ditugu. Gizonezko batek urratsen bat egin badu intimismora, txalotzen zaio urrats hori, baloratzen zaio. Eta emakumearen kasuan, bere eremua da, beraz ez da ez txalogarri eta ez ezer. Eta hortik ateratzen bada, berriz... Eta hori gai asko eta askorekin.



Hernaniko baratomunitateak emandako konpost-kaxa bat.

**Beraz, ez gara ari produkzioari buruz hainbeste, bai- zik eta guk jasotzeko garaian nola jasotzen ditugun testu horiek, mezu horiek...**

Bai. Ez da hainbeste erakustea: «begira! Emakumeek hau egin dute!». Gehiago da gure irakurketa jarreretz gogoeta bat egitea. Gai horiez hitz egiteko testuak eramango ditut. Adibidez eramango dut, Artze; Jose Anton Artzeren testu bat oso feminista izan daitekeelako, eta agian, beste emakume batena ez. Estereotipo batzuk hausteko. Testu hori guretzako oso baliagarri zaigu; horko eredu batzuk baliagarri zaizkigu, feminismoan urrats batzuk egiteko. ||

### IRATXE RETOLAZA

Irakurbide Feministak

1977-Donostia

Euskal Filologian lizentziatua eta Literatura irakaslea EHUUn

Doktoradutza tesia aurten bukatzekoa du: 'Genero eraikuntza euskal nobelan'

#### IZEN EMATEA:

Apuntatzeko azken eguna bihar

09:00-14:00

Sandiusterri I - Karobieta 63

943 337 017 - 943 336 802

irantzu-j@hernani.net

#### Ikastaro-Tailerrak

##### 1) IRAKURBIDE FEMINISTAK.

Irakaslea: Iratxe Retolaza.

Egunak: Ostegunak (otsailak 25, martxoak 4-11, apirilak 15-22-29).

Ordutegia: 18:00-20:00

Hizkuntza: euskeraz

Lekua: Biteri

Matrikula: 12 euro

Iraupena: 12 ordu

Ikasle kopurua: 8 eta 20 bitarte.

##### 2) EROTISMOA ETA SEDUKZIOA.

Irakaslea: Clara Perez Wolfram.

Egunak: Ostiral eta larunbatean (apirilak 9-10, maiatzak 14-15, ekainak 11-12).

Ordutegia: ostiraletan 16:00-20:00; larunbatean 10:00-14:00 eta 16:00-20:00

Hizkuntza: elebrietan

Lekua: Biteri

Matrikula: 30 euro

Iraupena: 30 ordu

Ikasle kopurua: 8 eta 20 bitarte.

##### 3) EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA.

Irakaslea: Isabel Bernal Gallastegui.

Egunak: Ostirala eta larunbata (martxoak 5-6).

Ordutegia: ostiraletan 16:00-20:00; larunbatean 10:00-14:00 eta 16:00-20:00

Hizkuntza: gaztelania

Lekua: Biteri

Matrikula: 12 euro

Iraupena: 12 ordu

Ikasle kopurua: 15 eta 30 bitarte.

##### 4) LABORATEGI ESPERIMENTALA ARTERA HURBILTZEA.

Irakaslea: Izaskun Alvarez Gainza.

Egunak: Ostiraletan (maiatzak 7-14-21-28 eta ekainak 4).

Ordutegia: 16:00-20:00

Hizkuntza: elebrietan

Lekua: Biteri

Matrikula: 20 euro

Iraupena: 20 ordu

Ikasle kopurua: gehienez 12



**ANEXO:**  
**MOTA GUZTIETAKO ETXETRESNAK**

**Zure etxeak behar duena...  
guk daukagu !!**

Kale nagusia, 59 (zinkoenea) - 20120 Hernani Tfnoa: 943 55 03 81

## ❖ HERNANIKO OLINPIADAK



Villar, Carmona eta Barrenetxea, Olinpiadak antolatzen ibili diren hiru generazio.

## «Olinpiaden helburua lehengo bera da, koadrilak elkartzeta eta herrian saltsa sortzea»

Gazte Asanbladak Olinpiadak antolatu ditu, eta apirileko azken asteburuan hasiko dira. Izena emateko epea ostiralean irekiko da.

HERNANIKO lehendabiziko olinpiadak 1986an izan ziren, eta geroztik 1987-88an ere egin ziren. Sona haundia izan zuten, bai Hernanin eta bai Hernanitik kanpora. Asko dira olinpiada haiek gogoan dituztenak; taldeen izenak ezagunak dira oraindik: *Des-capotables*, *La pantoja ya no moja*, *Costillada en Oklahoma*, *Astaputzak*... Hernanin egin zen lehenengoz eta gero Andoainen eta Hondarribian ere egin ziren gehiago.

Geroztik, Hernanin beste bi olinpiada egin ziren, 1998an, eta 2000 urtean, eta haietan ere parte hartzea izugarria izan zen. Orain, berriz ere, lehengo helburu eta asmo berdinekin, Gazte Asanbladak olinpiadak antolatu ditu; eta itxura denez, arrakasta izango dute, lehendabiziko bileran 90 lagun bildu baitira, 20 koadrilatakoak.

Olinpiadak 4 asteburutan jokatuko dira, apirileko azken asteburuan hasita. Izena emateko epea datorren ostiralean irekiko da.

Kronikak hitz egin du, aurreko olinpiadak antolatzen ibili zirenekin eta orain ari direnekin. Carmonak, Villarrek, eta Barrenetxeak oso garbi dute, helburua beti berdina izan dela: herriko jendea elkartzea eta saltsa sortzea.

Egin diren olinpiadek izugarritzko erantzuna izan dute: 400 lagun inguruk parte hartu dute, eta 20 bat koadrilek

### «Olinpiada historikoak»

Carmona aritu zen lehendabiziko olinpiada haiek antolatzen, beste jende askorekin batean: Rekalde, Erdozia, Montero... 22-23 koadrila aritu ziren lehian, 400 bat pertsona, 90 egunetan.

Astean eta asteburuan jokatuko ziren olinpiadak. Koadrila bakoitzak froga bat antolatu zuen, eta denetik izan zen: pelota, futbola, errugbia... atletismoa, boleibola, bizikleta... eta ez hain ofizialak ere bai: labandera, brile, kontrabandista jokoa... edo txapela jaurtikea, marrazkia, gaueko patin lasterketa...

Hernanitik kanpoko koadrilek ere parte hartu omen zuten olinpiada haietan, eta ondoren beste herri batzuek ere egin zituzten: Andoainek eta Hondarribiak, esaterako.

Carmonak gogoan du zergatik eta zertarako sortu ziren lehendabiziko olinpiada haiek. «Hernanin ez zegoen mugimendurik. Koadrilek ez zuten elkarrekin harremanik, eta falta zena hori zen, kontaktu

pixka bat». «Hiru helburu genituen batik bat: organizatzen ikastea; lehiakortasuna erabiltzea saltsa pixka bat sortzeko, eta denen parte hartzea bultzatzea: gizon-emakumeak elkarrekin lehian aritzea...».

### Generazio berriak, helburu berdinak

Geroztik, eta lehendabiziko haiek gogoan hartuta, 1998 eta 2000 urteetan egin ziren olinpiadak. Hernaniko Gazte Asanbladak antolatu zituen, helburu berdinarekin, eta mugimendu tankerakoa izan zen herrian. Villarrek gogoan du, 20 talde inguruk parte hartu zutela; guztira 300-400 pertsona inguruk. «Helburuak berdinak ziren, eta funtzionamendua ere bai, eta emaitza ere halakoxea izan zen».

Barrenetxea da aurtengo olinpiadak antolatzen ari denetako bat, eta bere esanetan, aurtengo ere parte hartze haundia espero da. «Lehendabiziko bileran 90 lagun bildu gara, 20 bat koadrilatakoak, eta dagoneko ikusi liteke, saltsa dezentea izango dela».

Parte hartu nahi duten koadrilek aukera izango dute datorren ostiraletik aurrera izena emateko. 10 lagunetik gora behar dira, eta taldeak mixtoak izango dira. Hortik aurrerakoa bileretan erabakiko da. ||

## X Asteko agenda

#### OTSAILAK 23, asteartea:

• **Ipuin kontaketa:** Kontalaria: Maite Franko  
Udal liburutegian, 17:30tan (3-4 urte) - 18:00tan (5-7 urte).

#### OTSAILAK 23, asteartea:

• **Solasaldiak:** Nafarroa 1512-2012.  
Biteri kultur etxean, 20:00tan.

#### OTSAILAK 25, osteguna:

• **Zine kluba:** *Yo tambien*. Zuzendariak: Alvaro Pastor eta Antonio Naharro, 2009, Biteri kultur etxean, 21:30tan.



#### OTSAILAK 27, larunbata:

• **2. eskuko azoka:** Atsegindegi plazan.

#### OTSAILAK 27, larunbata:

• **Txotx denboraldia:** *Zo-ZongPerkushow*.

#### OTSAILAK 17- MARTXOAK 3:



**Argazki erakusketa:** Mari Claire Aduriz. ,  
Biteri kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



## LORENZO SANCHEZ PORTAL GARCIA BOTIJO

(Gure lankidea den Eduren aita)

Animoak eta besarkada bero bat  
zure lankideen partetik.

### HERNANIKO UDALTZAINGOA

Hernanin, 2010eko otsailaren 21ean

**TELEFONOAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
● **FARMAZIAK** ● Eguz: **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauz**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA** ● **GAUR** Eguraldi nahasia. Tarteka laino multzoak sortu eta zaparradaren bat botako du. Hegoaldeko haizeak zakar joko du eta tenperatura igo egingo da.  
● **BIHAR** Giro haizetsuarekin jarraituko dugu. Zerua guztiz lainotua egon ez arren, tarteka zaparradaren bat bota dezake. Tenperaturak gora egingo du. (euskalet)

## ❖ ARGAZKI ERAKUSKETA BITERIN - MARIE CLAIRE ADURIZ



Árbol amarillo

Marie Claire Adurizek etxetik ikusten du Goiz Eguzkiko 'Gingko Biloba' zuhaitz ederra.

# «Edozein aitzakia, edozein detaile, egokia da argazki baterako»

Alabari begira ikasi zuen argazkilaritza, eta orain afizio nagusi bihurtu zaio. Erakusketa jarri du Biterin, eta martxoaren 3ra arte dago ikusgai.

«EDOZERI ateratzen diot argazkia, atentzioa pizten badit; edozein aitzakia izan liteke ona argazki baterako». Garbi dauka Marie Claire Adurizek, eta hala bizi du argazkigintza, hobbie bezala. Argazki munda orain dela urte gutxi eza-gutu zuen, alabari esker; alaba (Ainara Azpiazu), argazki irakaslea izana da Biterin.

Parisen jaioa da Aduriz; zazpi urterekin Donostiara etorria; eta urte asko darma-zki Hernanin bizitzen. Emakume bizia da, «kiositate eta idealismoz betea» bere esanetan. Argazkilaritza du afizio, eta baita itsasoa ere. Ez da aspertzen itsasoari begira; donostiar ona izaki.

«Begiradak asko gustatzen zaizkit; begiek... atzean izan dezaketen historia guztia»

«Detailea da bilatzen dudana, egunero ikusten dugun horren detaile bat»

Begi bistan dauden gauzei ateratzen dizkie argazkiak Adurizek; beti detaile edo ikuspegi berri bat bilatzeko asmoan. «Atentzioa pizten ditate gauza askok; egunero hor daudenak, behin ezberdin ikusten dituzu, eta argazkia ateratzen diezu». Etxe aurreko Gingko Biloba ezagunari ateratuko argazkia du gustukoe-

na. «Izugarria da zuhaitz hori; udazkenean batik bat. Egunero ikusten dut, eta istorioak asmatzen ditut: zeinek ekarri ote zuen, zertarako...».

«**Natura, animaliak... eta begiradak gustatzen zaizkit**» «Badut natura eta animaliekiko halako miresmen bat. Txakurrak, hain dira leialak zintzoak... Eta begiradak ere txoratu egiten naute. Atzean izan dezaketen historia; historia gogorra askotan».

Martxoaren 3ra arte dago ikusgai, 18:00etatik 20:00etara, argazki erakusketa, Marie Claire Adurizen lehendabizikoa, eta ziur aski azkena izango ez dena. ||

## ❖ ZINEA

### 'El Erizo' pelikula helduentzat eta 'Vicky Vikingoa' haurrentzat gaur ikusgai

*El Erizo* pelikula emango dute gaur helduentzat 19:30etan, Biterin. Haurrentzat, berriz, *Vicky Vikingoa* izango da ikusgai. Arratsaldeko 17:00etan izango da. ||

## ❖ GALDUTAKOAK

### Txakur bat galdu zen atzo Osiñagan

Pastor aleman arrazako txakur haundi bat galdu zen atzo goizean, Argindegi baserri inguruan, Osiñaga auzoan. Ez du koilarerik, baina jabeak azaldu duenez, bere ezaugarri nabarmenetako bat da ez zaiola belarri bat altxatzen. Aurkituz gero, deitu telefono honetara: 658 719 105. ||

## Atez ateko zalantzak argitzen

Txakur eta katu hondarrak nora bota behar dira?

Errefusera.

Bidali zure galdera helbide honetara: [info@hernaniatezate.net](mailto:info@hernaniatezate.net)  
Galde-erantzun guztiak webgunean: [www.hernaniatezate.net](http://www.hernaniatezate.net)



## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Frantsesa ikasi nahi dut eta irakasle partikular baten bila nabil. Deitu: 943 33 30 65.

Pisua salgai Sagastialden. 2 logela, sukaldea, komuna eta saloia, amueblatua. (27.000.000 pzta). Deitu: 637 959 992 / 630 118 545.

Garajea alokairuan Akarregin (autokarabana batentzako). Deitu: 609 767 673

Pisua salgai Karabelen. 60m2, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modelo, bigarren eskuko. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Zure arazo eta blokeo pertsonalekin lagunduko zaitut. Bide hauek erabiliz: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach... (Alicia C.C.). Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**HERNANIKO KRONIKAK PRAKTIKETARAKO PERTSONA BAT BEHAR DU**

Bidali zure Curriculum Vitae-a, otsailaren 22ra arte

- [kronika@kronika.net](mailto:kronika@kronika.net)  
- DOBERA EUSKARA ELKARTEA  
LARRAMENDI 11 BEHEA  
20.120 HERNANI

**Egin beharrak:**

- 10. urteurrena prestatzen eta aurrera eramateko laguntza
- Lan administratibo eta Marketing arloan

**Eskatzen da:**

- Iniziatiba edukitzea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna
- Euskera menperatzea

**Baloratuko da:**

- Lehenago horrelako lanetan aritua izatea
- Jende aurrean esperientzia izatea

**Eskainiko zaio:**

- Praktiketako kontratua
- Praktikat ordainduak izango dira.

**PEÑA**

**OKINDEGIA - JANARIDENDA**

**Eguneroko zure beharrei erantzuteko, Kale Nagusian gaude.**

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

**Amegar**

**Etxe Tresnak - Altzariak**

Erabili ezazu BERRIAK txartela

Ordaintzeko erraztasunak - Finantziaketa - 12 hilabetetan interesik gabe -

**Txirrita kalea, 13-15 Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03**